



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko azaroaren 25a

131. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretira dezan Nafarroako hezkuntzan berdintasunean hezteko eta genero indarkeriari aurrea hartzeko Plana. Hezkuntza Batzordeak onetsia (6. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Nafarroari eta bere toki entitateei dagokien eskubidea defendatzeko Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen ekimenei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, jakitekoa nola beteko duen Hezkuntza Departamentuak Parlamentuaren erabakia, zeinaren bidez agintzen baita Nafarroako hezkuntzan berdintasunean hezteko eta genero indarkeriari aurrea hartzeko Plana erretiratzea eta plan berri bat taxutzea. Marisa de Simón Caballero andreak egin du (7. or.).
- Galdera, familia nafarrei langabezia-sorospena kentzeak sorturiko egoera zuzentze aldera Nafarroako Gobernuak dituen asmoei buruzkoa. M.<sup>a</sup> Victoria Arraiza Zorzano andreak egin du (8. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lan-taldea, aztertzekoa parlamentu-taldeek ustelkeriaren aurka borrokatzeko aurkezten dituzten proposamenak eta ustelkeria kasuistika desberdinak prebenitzeko eta politikoki zigortzeko neurriak. Foru Araubideko Batzordeak onetsia (9. or.).
- Lan-taldea, Nafarroako Gobernuari proposamen bateratu bat aurkeztekoa, Nafarroako hezkuntza-sisteman hezkidetzeta edota berdintasunezko hezkuntza sustatzea eta indarkeria matxistari aurrea hartzea dela-eta. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (9. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena.**

**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Foru Lege proiektu honi aurkezturiko zuzenketak: "Foru Lege proiektua, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena". Proiektu hori 2014ko urriaren 17ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

OSOKO ZUZENKETA

**1. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA-EZKERRA**

**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Osoko zuzenketa, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztua.

Zioak: Espainian eta Nafarroan azken urteotan abian jarritako etxebizitza politikak negargarriak izan dira kontuan hartzen badugu zer helburu izan behar duen etxebizitza publikoaren gaineko politika orok: herritarrek etxebizitza duin eta eskuratzeko moduko bat izateko eskubidea bermatzea. Horren ordez, etxebizitza publikoaren politika bideratu da ia bakar-bakarrik salerosketarako etxebizitzen eraikuntza eta arlo horretako espekulazioa

erraztera, hainbestearino non krisi ekonomikoaren eragile nagusietako bat gertatu baita higiezin burbuilaren leherketa eta hari lotutako krisi ekonomikoa.

Azken urteotan, etxebizitzaren politika publikoaren inguruko zenbait txosten oso argigarri ezagutu ditugu. Kontuen Ganberaren arabera, 2005. eta 2012. urteen artean, babes ofizialeko etxebizitzen prezioa %33,39 handitu zen, KPlaren oso gaineratik, halako moduz non izugarri garestitu baitzen herritarren parte handi batek eskura zezakeen etxebizitza-tipologia bakarra: babes ofizialeko etxebizitzak.

Era berean, txosten horren arabera, etxebizitzarako laguntza publiko zuzenekoan % 68 (zergarintzeak kontuan hartu gabe), etxebizitzen erosketa finantzatzera bideratu ziren, eta % 32 soilik etxebizitzen alokatzea finantzatzera. Gainera, etxebizitzak alokatzera bideratutako gehienak, laguntzen % 60, etxebizitzen sustatzaileentzat izan ziren, gero alokatzeko izanen ziren etxebizitzen eraikuntza finantzatzeko, eta gainerakoak etxebizitzak errentan hartzen zituztenentzat.

Kontuen Ganberak adierazitako datuei beste 579 milioi gehitu behar zaizkie, hori baita azken bost urteotan etxebizitza erosteagatiko kenkariengatik jaso gabe gelditu dena. Zerga-arintze horiek, diru-laguntzek bezala, ez zuten, inondik ere, etxebizitzen prezioa merkatu; aitzitik, etxebizitzen salneurriak garestitzeko lagungarri gertatu ziren. Etxebizitza Planean bertan, azken urteotako inbertsioek, 2008tik 2012ra bitartekoek, aurrekontuaren % 35 egiten zuen etxebizitzen erosketara bideratutakoak, eta % 11, aldi, alokairura bideratutakoak.

Etxebizitzaren salneurriari dagokienez, nabarmentzekoa da INEren datuen arabera, e-

txebizitza libreak %44,9 merkatu direla, eta modulu publikoaren prezioa, berriz, % 14,37 garestitu dela.

Aipatutako datuei gehitu behar zaizkie azken urte hauetan argitaratu diren beste azterlan batzuk, ezinbesteko datuak ematen dituztenak ondorioak ateratzeko.

Espainiako Estatistika Institutuaren arabera, Nafarroan 34.000 etxebizitza huts inguru daude (nahiz eta denak alokatzeko modukoak ez izan), baina Nafarroako etxebizitzaren zentsu bakarrean, eskariaren % 80 inguru alokatzekoa da, ez erostekoa.

Era berean, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteak egiaztatu du gora egin duela alokairuko etxebizitzaren eskariak, eta beste txosten bat aurkeztu du, non baieztatzen baitu 2007tik 2012ra iragan garaia etxebizitzaren % 8 alokairu-araubidekoa izatetik % 12,12 izatera.

Nahiz eta ez dugun zehatz ezagutzen beren lehen etxebizitzaren hipoteka ezin orain dezaketen familien kopurua zenbatekoa den (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren zenbateko ofizialek ez dute argi bereizten lehenengo etxebizitza den ala ez), badakigu Nafarroan ehunka familia etxebizitza direla. Izan ere, argitaratu den azkeneko datuak adierazten du zenbateko horrek % 7 egin duela gora aurreko urteko aldi berarekin alderatuta; bitartean, Estatuko batez bestekoak % 3 egin du gora.

Europa erdialdeko herrialde gehienek modu oneko alokairu publikoaren aldeko apustua egin duten bitartean, herritar gehienaren etxebizitzarako eskubidea bermatzek modu gisa, Espainia da Europako herrialdeetan alokairu-araubidean bizi diren pertsonen ehuneko txikiena duena. Nabarmenezkoa da Espainiako batez bestekoa % 13koa den bitartean, Europakoa % 33koa dela eta Alemaniakoa % 57koa.

Hori guztia dela eta, Nafarroak, gure iritiz, 180 graduko aldaketa bat behar du etxebizitza-politikaren arloan; aldaketa hori egiteko, lehentasuna eman behar zaio alokairuari salerosketaren gainetik, nafar guztiek etxebizitza duina izateko daukaten eskubidea legez bermatzeko bide erreala bakar gisa. 34.000 etxebizitza huts baldin badauzkagu (horietako asko alokairuko merkatuan sar daitezkeenak) eta etxebizitzaren zentsu bakarrek eskaria 6.000 eta 7.000 bitartekoa bada, formula batzuk bilatu beharko dira pertsona guztiek alokairuko etxebizitza bat eskuratu ahal dezaten, arrazoizko prezioetan. Neurri horien artean, honakoak nabarmenduko genituzke presa handienekotzat:

– Alokairuko etxebizitza publikoa sustatzeko laguntzak eta zerga-arintzeak berrorientatzea, halako moduz non inork ez duen bere errentaren ehuneko jakin bat baino gehiago, etxebizitzaren gastuak ez dezan hipoteka herritarren bizi-kalitatea.

– Babes ofizialeko etxebizitzaren alokairurako gehieneko prezioei beherapen garrantzitsu bat aplikatzea, zeren eta gaur egun, batzuetan, merkatu libreko etxebizitzena baino garestiagoak izaten baitira.

– Gehiegizko fidantzak, maizterrek kontribuzioa ordaindu behar izatea eta gutxieneko errenta baten beharkizunak kentzea, eta egungo diru-sarrerara errealak kontuan izatea, eta ez aurreko urteko errenta-aitorpena; halaber, alokairu sozial publikoan egun dauden beste traba batzuk kentzea.

– Alokairurako etxebizitza publikoen banku zabal bat sortzea: orube publiko urbanizatu batzuk badaude non alokairurako etxebizitza publikoaren eraikuntza ordain daitekeen soilik alokairuen diruarekin, erkidegorako zorpetzerik ekarri gabe.

– Erraztasunak ematea Nasuvinsak kudeatzen duen alokairuko etxebizitza pribatuen poltsan etxebizitza-parke askoz ere handiago bat egon dadin.

– Alokairuan eskaintzen ez diren etxebizitza hutsei zergapetze bat aplikatzea (horretan ez dira sartuko erabiltzen diren bigarren etxebizitzak, noizean behin erabiltzen diren herrietako etxeak eta abarrekoak), haiek alokairuko merkatuan sar daitezkeen bultzatzeko.

– Zergapetze bat ezartzea alokairuan eskaintzen ez diren bankuen etxebizitza hutsei.

– Eraiki bai baina saltzen ez diren (baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonen kreditua ematen ez dietelako) 1.000 BOE inguru alokairura bideratzea eta ez gehien ordaintzen duenari saltzera, halakoetan sustatzaileak baizik ez direlako onuradun izaten.

– Zaharberritzerako laguntzen kopurua handitzea (eta ez haiek murriztea, Nafarroako Gobernuak egin berri duen bezala), zeren eta oso baliagarriak baitira sektoreko enpleguari eusteko, efizientzia energetikoa hobetzeko eta etxebizitzetan aurrezkiak lortzeko, bai eta zailtasun egoeran dauden pertsonen bizi baldintzak eta irisgarritasuna hobetzeko ere.

Bada garaia arlo publikoak politika serioak abian jar ditzan. Izan ere, politika horien lehentasuna ez da izanen gutxi batzuek espekulazioan

jardutea, baizik eta funtsezko eskubide bat bermatzea.

Hori guztia dela eta, Ezkerreko-Parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du Osoko Bilkurak eztabaidatu eta bozka eza:

Ezkerreko-Parlamentu-taldeak eskatzen du Nafarroako Gobernuari itzul dakiola Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketara babesgarriari aplikatu beharrezko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorra sortzen duen Foru Lege proiektua, eta beste proiektu bat bidal dezala, arestian aipatutako irizpideekin, aurrez sektoreko eragile nagusiekin eta etxebizitzaren arloko arazo eta etxegabetzeen arloan lan egiten duten herritarren plataformekin eztabaida publiko eta parte-hartzailea eginda.

## ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

### 1. ZUZENKETA

#### EZKERREKO- PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren Bat atala aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geldituko da:

«Bat. 10. artikuluan, 2., 5. eta 6. idatz-zatiak aldatzen dira. Honela idatzita geldituko dira:

“2. Etxebizitzaren arloko kontseilari eskudunak finkatuko du babestutako etxebizitzaren eta haien eranskinen salmenta eta alokairuko gehieneko prezioa, foru lege honetan aurreikusitakoarekin bat. Horretarako, salmenta eta alokairuko gehieneko prezioak finkatu aurretik, artikulu honen 5. idatz-zatian jaso den formularen ezarritako aldagaien balioak zehazteko beharrezkoak diren kontsultak egingen dira.

5. Moduluak urtero eguneratuko dira, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izateko, babes ofizialeko etxebizitzaren (BOE) salmentarako gehieneko balioa formula hau erabiliz kalkulatu:

$VMu = ((1.27 + H/100) \times PEMu) / (0.755 - (F + Co + B)/100)$ , hau da:

$VMu =$  salmentarako gehieneko balioa, babes ofizialeko etxebizitzaren metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

H = Obra proiektuaren eta zuzendaritzaren lan-sari teknikoaren kostua, exekuzio materialaren aurrekontuaren ehunekoan adierazia.

PEMu = Exekuzio materialaren aurrekontua, eurotan, metro koadro erabilgarri bakoitzeko. Hori kalkulatzeko, sustapen baten azalera erabilgarri osoa haxe izanen da: etxebizitza eta garajeetarako erabiltzen diren azalera guztien batura eta trasleku eta lokaletarako erabiltzen diren %40.

F = Sustatzailearen finantza kostuak, salmentarako gehieneko prezioaren gaineko ehunekoan adierazia (VM).

Co = merkaturatzearen kostuak, salmentarako gehieneko prezioaren gaineko ehunekoan adierazia (VM).

B = Sustatzailearen etekina, salmentarako gehieneko prezioaren ehunekoan adierazia (VM).

Aldagai horiek zehazteko, babes ofizialeko etxebizitzaren sustapen publikoak hartuko dira kontuan lehentasunez. Era berean, etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuan kalifikazioa jasotzeko aurkezten diren babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenei buruzko datuak ere erabili daitezke. Horretarako, departamentuak eskatzen ahalko die sustatzaileei aurkez dezatela obra amaierako ziurtagiria, edo formularen aurreikusitako aldagaiak kalkulatzeko interesekoak izan daitezkeen beste datu batzuk.

#### 5.1 Modulu ponderatua.

Babes ofizialeko etxebizitzaren metro koadro erabilgarri bakoitzeko gehieneko balioa zehaztu ondoren, modulu ponderatua honela kalkulatu da: balio hori zati babes ofizialeko etxebizitzaren eta haien eranskinen salmenta eta alokairuko gehieneko prezioak (metro koadro erabilgarri bakoitzeko) zehazteko ezarritako dagoen koefizientea.

#### 5.2 Ponderatu gabeko modulua.

Ponderatu gabeko moduluen balioa modulu ponderatuaren balioaren ehuneko laurogeita hamaseikoa izan da.

Bi. 25.1 artikuluan g) eta h) letrak gehitzen zaizkio, eta azken paragrafoaren edukia aldatzen da; hauek dira testuak:

“g) 12 puntu, etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan izena eman zuten egunetik azken 5 urteetan, hipoteka betearazteko epaiketa bidezko edo epaiketaz kanpoko prozesu judizialen ondorioz, ohiko etxebizitzatik aterarazteko ebazpen judizial bat jaso duten pertsonentzat.

h) 2 puntu, alokairuko etxebizitza batean bizi-tzeagatik, modu legalean, idatzizko kontraturik

gabe, etxea beste norbaitek lagata edo beste norbaitekin partekaturik.

b), c), d), e), f), g) eta h) letretako puntuazioak ez dira metatuko eskabide bakar batean”.

6. Errentan emateko diren babestutako etxebizitzaren eta horien eranskinen errenten gehieneko prezioa berbera izanen da denentzat, titularraren entitate publiko bat izan edo pertsona pribatu bat. Ezin izanen da inolako abalik eskatu errentamendu-kontratua egiteko”».

Zioak: Errentamenduek modulu berdina izanen dutela ziurtatzea, eta behar larrienean dauden pertsonen etxebizitza lortzeko aukera gehiago ematea.

## 2. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 25. artikuluko 6. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Erroldatuta egondako urteak ez saritzea, eta erroldatutako guztiak berdina tratatzea, Nafarroan daramatzaten urteak alde batera utzita.

## 3. ZUZENKETA

### MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA

#### FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

79.2 artikuluari beste letra bat –f) bis– gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“2. f bis) Etxebizitzaren jatorria, etxebizitza hori banketxe batek exekutaturako utzarazpen batetik heldu denean”.

Zioak: Uste dugu informazio horrek publikoki eskuragarria izan behar duela; izan ere, zirkunstantzia horren eraginez, beste egoera batzuek baldintza dezakete salmenta- edo alokairu-prezioa

## 4. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari beste atal bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«Sei. Beste xedapen gehigarri bat eranstean da. Hona testua:

“Hamalagarren xedapen gehigarria. Errentamendu-kontratuaren esleipena eta berritzea.

Babes ofizialeko etxebizitzaren eta Alokairuen Poltsari atxikitako etxebizitzaren errentamendu-kontratuak esleitzean eta berritzean, kontuan hartuko dira, diru-laguntza eskuratzeko, aurreko urteko zerga-aitorpenetik heldutako datuak, non eta, lan-egoeratik edo egoera ekonomikoagatik, beren diru-sarrerak ez diren gutxitu urte horretan; hala bada, berritzeko uneko datu errealei egiten zaie kasu, eta diru-laguntza eguneratzea eskatzen ahalko da edozein unetan, egoera ekonomiko hori edo lan-egoera hori aldatu denean”».

Zioak: Sarri gertatu ohi da interesdunen zirkunstantzia ekonomikoak aldatzea eskaera eta dokumentazioa aurkeztu zituztenetik berritzeko erabakia hartzen den unera bitarte, eta egoera horiek kontuan hartu beharra dago.

## 5. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari beste atal bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«Zazpi. Beste xedapen gehigarri bat eranstean da. Hona testua:

“Hamabosgarren xedapen gehigarria. Hiri-kontribuzioaren ordainketa.

Babestutako etxebizitzaren errentamendu-kontratuaren, hiri-kontribuzioa, betiere, errentatzaileak ordainduko du, eta ezin izanen da ordainketa hori errentariaren kargu utzi”».

Zioak: Etxebizitzak errentan ematen dituzten enpresa pribatuek ez dezatela errentariei zerga hori kobratzen jarraitu, eta nahitaezkoa izan dadila zerga hori errentatzaileak ordaintzea.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretira dezan Nafarroako hezkuntzan berdintasunean hezteko eta genero indarkeriari aurrea hartzeko Plana.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2014ko azaroaren 18an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretira dezan Nafarroako hezkuntzan berdintasunean hezteko eta genero indarkeriari aurrea hartzeko Plana”. Erabakia heldu da Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen mozio batetik, zeina 2014ko azaroaren 7ko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari exijitzen dio Nafarroako hezkuntzan berdintasunean hezteko eta genero indarkeriari aurrea hartzeko Plana erretira dezan, inkohherentzia eta gabezia larriak dituelako gizarte- eta eskola-egoeraren diagnosiarri dagokionez, eta neurriak zehaztu ditzan ikastetxeetan indarkeriazko jarrerak –eta batez ere, matxistak– efizientziaz eta eraginkortasunez detektatu, prebenitu eta zuzentzea ahalbidetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio plan berri bat taxutu dezan, gutxienez ere ondokoak jasoko dituena:

- Gizartean ematen diren indarkeriaren eta indarkeria matxistaren egoera orokorraren eta tes-tuinguru bereziki sentikorren gaineko analisia, bai eta horien zergatien gainekoa ere.

- Ikastetxeetan ematen diren indarkeriaren eta indarkeria matxistaren egoera orokorraren gaineko analisia, bai eta horien zergatien gainekoa ere.

- Eskola-esparruan ematen diren indarkeriazko jarrerak –eta bereziki, indarkeriazko jarrera matxistak– prebenitzeko eta zuzentzeko jarduketak-esparrua.

- Eskola-esparruan indarkeriarik ezean eta indarkeriarik ezerako –eta bereziki, indarkeria matxistarik ezean eta ezerako– hezteko jarduketak-esparrua.

- Helburuak eta eskola-esparruan jarduteko nahiz familiekin lankidetzan aritzeko jokabide-ildokak.

- Sexu ezberdinetako ikasleen arteko bizikidetasunean eta bizikidetasunerako hezteko estrategiak.

- Curriculumean, Ikastetxearen Heziketa Proiektuan eta Urteko Programazio Orokorrean sartzeko indarkeria –eta zehazki, indarkeria matxista– prebenitzeari buruzko edukiak.

- Indarkeriazko –eta zehazki, indarkeria matxistako– egoerak detektatu, borrokatu eta prebenitzeko berariazko planak egitea.

- Estrategiak eta baliabideak, plana nahiz bizikidetasunaren hobekuntza ebaluatzeko, jarrerak aldatzeko, berdintasunean aurrera egiteko, sentibilizatzeko eta indarkeriazko jokabideak murrizteko.

3. Plan berri hau taxutzerakoan, Nafarroako Gobernuak hezkuntza-komunitate osoa inplikatu beharko du: administrazioa, irakasleak, ikasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak eta berdintasunaren aldeko eta diskriminazioren kontrako lanaren esparruan diharduten erakunde eta pertsonak”

Iruñean, 2014ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroari eta bere toki entitateei dagokien eskubidea defendatzeko Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen ekimenei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasunezko galdera, Nafarroari eta bere toki entitateei dagokien eskubidea defendatzeko Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Auzitegi Konstituzionalaren 1528/2011 epaia ikusita –zeinak Toki Administrazio publikoaren arloko eskumen historiko berekiak zapaltzen baititu–, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuak eta Toki Administrazio departamentuak zer ekimen urgente abiaraziko dituzte, Nafarroari eta bere toki entitateei dagokien eskubide hori defendatzeko?

Iruñean, 2014ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

**Galdera, jakitekoa nola beteko duen Hezkuntza Departamentuak Parlamentuaren erabakia, zeinaren bidez agintzen baita Nafarroako hezkuntzan berdintasunean hezteko eta genero indarkeriari aurrea hartzeko Plana erretiratzea eta plan berri bat taxutzea.**

*MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasunezko galdera, jakitekoa nola beteko duen Hezkuntza Departamentuak Parlamentuaren erabakia, zeinaren bidez agintzen baita Nafarroako hezkuntzan

berdintasunean hezteko eta genero indarkeriari aurrea hartzeko Plana erretiratzea eta plan berri bat taxutzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak heldu den azaroaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan azaroaren 18an, Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Batzordean onetsi zuen Nafarroako hezkuntzan berdintasunean hezteko eta genero indarkeriari aurrea hartzeko Plana erretiratzea, eta Nafarroako Gobernuari exijitu zion plan berri bat taxutu dezan, gizartean eta hezkuntzaren esparruan gertatu ohi diren desberdintasun eta indarkeria matxistako egoeren analititik abiatuta, proze-

durak, estrategiak, edukiak eta helburuak zehaztuko dituen berdintasuna eta bizikidetasunaren hobetzea sustatzeko eta indarkeria matxista prebenitu, detektatu, tratatu eta ebaluatzeko.

Hezkuntza Departamentuak nola betetzeko asmoa du Nafarroako hezkuntzan berdintasunean hezteko eta genero indarkeriari aurrea hartzeko Plana erretiratzeari buruz eta plan berri bat taxutzeari buruz Parlamentu honek onetsitakoa? Zer prozedura aurreikusten du garatzea plan berri bat taxutzeko, haren egiturari, edukiari nahiz ukitutako taldeen eta adituen parte hartzeari dagokienez?

Iruñean, 2014ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

---

**Galdera, familia nafarrei langabezia-sorospena kentzeak sorturiko egoera zuzentze aldera Nafarroako Gobernuak dituen asmoei buruzkoa.**

*M.<sup>a</sup> VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.<sup>a</sup> Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako gaurkotasunezko galdera, familia nafarrei langabezia-sorospena kentzeak sorturiko egoera zuzentze aldera Nafarroako Gobernuak dituen asmoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari M.<sup>a</sup> Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Estatuak langabezia-sorospena kendu die Nafarroako familia ahulei, zeinek gizarteratze-errentaren bidez osatzen baitzuten langabezia-sorospena. Nafarroako Gobernuak zer egingen du horrek sortutako egoera zuzentzeko?

Iruñean, 2014ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Lan-taldea, aztertzekoa parlamentu-taldeen ustelkeriaren aurka borrokatzeko aurkezten dituzten proposamenak eta ustelkeria kasuistika desberdinak prebenitzeko eta politikoki zigortzeko neurriak.**

*FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAK ONETSIA*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin lan-talde bat sortzeko erabakia, aztertzekoa parlamentu-taldeen ustelkeriaren aurka borrokatzeko aurkezten dituzten proposamenak eta ustelkeria kasuistika desberdinak prebenitzeko eta politikoki zigortzeko neurriak. Erabakia Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordeak onetsi zuen, 2014ko azaroaren 18an egindako bilkuran. Hona testua:

“1. Foru Araubideko Batzordean lan-talde bat eratzen da, aztertzekoa parlamentu-taldeen ustelkeriaren aurka borrokatzeko aurkezten dituzten proposamenak eta ustelkeria kasuistika desberdinak prebenitzeko eta politikoki zigortzeko neurriak.

“ Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, aipatu lan-taldearen osakerari eta eratzeari buruz behar dena xeda dezan.”

Iruñean, 2014ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Lan-taldea, Nafarroako Gobernuari proposamen bateratu bat aurkeztekoa, Nafarroako hezkuntza-sisteman hezkidetza edota berdintasunezko hezkuntza sustatzea eta indarkeria matxistari aurrea hartzea dela-eta.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2014ko azaroaren 18an egindako bileran, baztertu zuen Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkeztutako proposamena, lan-talde bat sortzeko, Nafarroako Gobernuari proposamen bateratu bat aurkeztekoa, Nafarroako

hezkuntza-sisteman hezkidetza edota berdintasunezko hezkuntza sustatzea eta indarkeria matxistari aurrea hartzea dela-eta.

Iruñean, 2014ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera





